




Bizkaitarrei  
Bizkaieraz



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)



Ez da gitxiagorako!  
(Euri tanta)



Kastrexanako  
Deabru-zubia

## Bizkaia Irratia 25 urte, II. zatia



F.M. 102.6

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2015-2016 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

### 48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

# BIZKAIA IRRATIKO ARTXIBO HISTORIKOA DIGITALIZAUTA

Euskerazale batek

**2015** ean Bizkaia Irratiak 25 urte bete dauz. Ez da makala Bizkaian euskeraz diarduen irratia adin orretara eltzea. Orreri, gañera, geitu bear jako Erri Irratiak aurretik euskeraz egiten eban emisinoa.

Urte guztiotan zenbat saio, zenbat ordu, zenbat gai mota, zenbat jente bertan euskeraz berbaz. Gure memoriaren zati ederra osotzen dabena ez dago zalantzarik.

Alan ikusi dabe Bizkaia Irratiak berak, Labayru Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Irurak alkar artuta ori materialori digitalizatzeko egitasmoa bete dabe.

Bizkaia Irratiak ainbat audio eta grabaziño ordu daukaz gordeta; ez emisiño-ordu guztiak, argi dago; baña ainbat a ta guzti be. Artxibo ori osorik artu eta Labayru Fundazioagaz batera digitalizau egin dabe.

Kontuan artu bear da urteotan zenbat aurreratu dauen teknologiak. Ori dala-ta, ainbat formatutan gorde izan dira grabazinoak: Revox, kasetak, zinta digitalak.

Baña orrez gañera, baktxean barruan zer dagoan jakiterik ez da egon, gañean dakarren etiketa laburra baño ez dabelako euki ezaugarritzat.



Beraz, lan onek bigarren parte bat be eduki dau: audiotan zer dagoan sailkatzea eta katalogatzea. Orretan ainbat lan-ordu emon dabez Labayru Fundazioan.

Laburbilduta 1983tik 2001era bitarteko audio-artxiboa digitalizau eta katalogau dabez. Lan orren elburua audio orreetan egon daitekeen ondarea errekueratzea eta barriro gizarteratzea izan da.



LOKUTORIOA



## ORAIN ARTEKO EMAITZAK

Lan orrek emaitza batzuk emon dauz.

Alde batetik, artxiboan guztira 627 zinta egon dira, era bateko eta bestekoak: 203 kaseteak, ganerakoak Revox eta antzeko formatuetakoak.

Kalidade aldetik gorabera andiak dagoz batzuen eta besteen artean. Askok soñu ona daukie, baña batzuk zarata zikinak estalduta dagoz. Dana dala, artxibo bakotxaren fitxan, edukia ezeze, kalidadearen gañeko baloraziñoa be badago. Aurreantzean, beraz, erabilteko erea sortu ezker, informazioa agirian egongo da.

Edukien aldetik, ainbat motatako saioak agertu dira; kasurako, adierazpenak, albisteak, alkarrizketak, bertsoak, ekitaldiak, itzaldiak, mai-inguruak, mezak, omenaldiak, prentsaurrekoak eta saio bereziak.

Materialon balioaz jabetzeko, mota bakotxeko adibideak aitatuko doguz.

- Alkarrizketetan oneek dira adibide batzuk: Agustin Zubikarai, Alberto Onaindia, Ander Manterola, Andres Urrutia, Anton Aurre, Jose

Migel Barandiaran, Bittor Garaigordobil, Jaime Kerexeta, J.A. Retolaza, Jesus Maria Leizaola, Karmelo Etxenagusia, Lontzo Zugazaga, Luis Maria Larrea, Miren Azkarate, Xabier Amuriza, Xabier Lete... Gure kulturako pertsonaia garrantzitsuak danak be, zetan edo atan nabarmendu diranak. Batzuk, ganera, ilda dagoz onezkero, eta orrek beste balio bat emoten deutsie, euren abotsa errekuerau eziña da eta.

Mai-inguruak: 29 mai-inguru errekuerau doguz, 1989 eta 1999 urteen artean grabautakoak. Geienak BIA Bizkaiko Idazleen Alkarteak antolatutakoak dira euskereagaz zerikusia dauken gaien buruz.

Ona jorratutako gaien adibide batzuk: Mendebalde Kultur Alkartea; Lino Akesolo; Liburgintza Bizkaian; Lauaxeta; Kerexeta; Euskera eta Udalak; Euskaldunak Munduan; Emakumea eta Eliza; Eleizea eta euskerea; Bizkaierazko argitalpenak; Bizkaiera eta bertsoaritza; Bizkaia eta komunikabideak; Ama euskera eta irakaskuntza; Belaunaldien arteko transmisioa; Auzo eskolak Errepublikara garaietan...

- Mezak: guztira 8 meza dagoz. Adibide moduan, Karmelo Etxenagusia Bilboko gotzain laguntzaile izendatzeko 1995ean ospatu ziran mezak dagoz grabatuta. Urte berean, Ricardo Blazquezek Bilboko gotzain kargua arzteko beste meza bat dago.

- Omenaldi: batzuk aitatuko doguz.

1985ean, Fasio trikitalariari Iurretan egindako omenaldia.

1986an, Jesus Mari Leizaola leendakari oia Bizkaiko Seme Bikain izendatu ebenekoa.

1988an, Eusebio Erkiaga Lekeitioko Seme Ospetsu izendatu ebenekoa.

1996an, Labayruk Alfonso Irigoieni egindako omenaldia.

1998an, Piarres Xarriton idazleari omenaldia Derioko Udako Ikastaroetan.

- Prentsaurrekoen artean, oneek batzuk:

1991n, Euskal Erriko gotzain guztiak argitaratutako Karta Pastoralaren aurkezpena egin eban Luis Maria Larreak.

1997an, Miguel Angel Blanco il ebela eta, prentsaurrekoa emon eban Ardanza leendakariak.



- Zortziko Txikia saioa: 60 saio dagoz grabatuta, 1995-2000 urteen artean.

Bilboko ikastola eta ikastetxeetako ikasleek egindako irratsaioa da 'Zortziko txikia' izenekoa, bertsolaritzari buruz. Bertan, umeez eurek sortutako bertsoak abesten dabez, ipuinak kontau...

Saio bakotxean alkarrizketa bat be egoten da, geienetan bertsolari bati. Alkarrizketatutako bantzuk: Unai Iturriaga, Fredi Paia, Basilio Pujana, Arkaitz Estiballes, Oiane Enbeita.

- Saio bereziak:

1994an, Emakumea eta goi karguak gaia oñari artuta egindako saioa.

1996an, Esaerak eta berba bereziak (5. Leia-keta). Sari banaketa.

1998an, Bizkaia Irratiaren 25. urteurreneko ekitaldi ofiziala.

## EMENDIK AURRERAKOAK

Egitasmo ederra izan da, benetan, eta guztiz egokia, Bizkaia Irratiaren 25 urteurrena ospatzeko. Orain 2015ean asitako lanari jarraipena emotea dator. Lan onen elburua asieran zan artxibo orretan ia balioko ondarrerik egoan jakitea. Orain badakigu zer dagoan eta gauza interesgarriak dagozana be. Urrengo pausoa ondare ori barriri gizarteratzea izan bearko litzateke, publiko zabala- ren eskura jartzea.

Interesgarria da onezkero ilda dagozan euskaltzaleen abotsak entzutea, bakotzak bere garaian esandakoak gogoratzea, berba egiteko erregistro ezbardinen lekukotasuna eukitea.

Gure izkuntza eta gure kulturaren ibilbidea ezagutu gura dabenentzat guztiz interesgarria emoten dau. Euskera lantzeko be, bitarteko ezin obea izan daiteke, euskera eredu ezbardinak entzutea.

Orrez ganera, Bizkaia Irratiak egunean-egunean sortzen dauen fonoteka gordetzea be ez da elburu makala, beste 25 urte itxaron bear ez izateko orain sortzen diranak entzungai eta eskura eukiteko.



# Ez da gitxiagorako! (Euri tanta)

## (Arantza Leniz)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2015eko sari leiaketa. Lenengo saria

*B*adakizue nor dan Giovanni Biassilli? Tenore italiar ospetsu bat da. Ruggero Leoncavallo musikagille italiarraren Pagliacci operako pertsonaia nagusia antzestu eban, orain iru illabete bat, Pariseko Garnier Operan. Nire azalpena entzun eta gero, operan aditua nazelakoan egongo zaree, ezta? baiña, egia esateko, gai onetaz ideiarik be ez daukat. Beñola irratian entzun arte Biassilli jaunari gertatutakoa, ez neban tenore au ezagutzen, naiz eta, antza denez, entzute andikoa izan mundu osoan. Pasadizuak grazia egin eustan eta orregaitik zeuei be Biassilliri jazotakoaren barri emon gura deutsuet.

Ba, diñotsuedan moduan, Pariseko Garnier Operan egon zan uda bueltan Biassilli jauna Ruggero Leoncavalloren Pagliacci lan ederreko pertsonaia nagusiaren papera egiten, ain zuzen ere, Canioren. Opera guztia kontatzea luze egi-

tetik aparte, egia esateko, nik neuk be ez dakit zelan dan istorio osoa, baiña Canio paillazo bat dana, ori ba dakit. Ba, Biassilli jauna, bost egunetan bere papera bikain betetu eta gero, azkenengo egunean afaria jatera gonbidatu eban operako zuzendariak. Tenore ospetsuak

eskerrak emon eutsozan eta oso pozik joango zala afaltzera esan eutson, baiña ezinezkoa zala bere emazteari berbea emonda eukalako, emonaldia eta gero alkarregaz afalduko ebela, euren ezkontzako 26. urteurrena ospatzeko.

Biassilli jaunak naiago eban Parisen egongo zan azken eguna emazteagaz pasatzea. Azken illeotan andik ona ebillen, alkar ikusteko asti barik. Parisen denboraldiko azken ekitaldia izango zala eta, emazteagaz bidai egitea erabaki eban. Onela urteurrena be



alkarregaz ospatuko eben, Paris dan eszenatoki erromantiko ezin obean.

Ospakizunerako Thoumieux jatetxea aukeratu eban. Bertan batzekotan gelditu zan emazteagaz eta orretarako ordu erdi bat baiño ez eukan. Taxi bat artu eban ostatura eroateko. Taxi-gidariak arrituta begiratu eutsen taxian sartzerakoan. Ez zan gitxiagorako, Biassilli jauna oraindiño antzespeneko arropakaz eta makillajeagaz joian eta, au da, paillazo jantzita. Biassillik kamerinoan aldatu baiño naiago eban arroztetxean aldatzea eta aurpegia be bertan garbitzea, ariñago egingo ebala pentsaurik.

Ostatura eldu zanean eta taxi-gidariari ordaintzerakoan konturatu zan diru-zorroa antzokiko aldagelan itzi ebala eta justu-justu eldu jakon sakeleko diruaz taxia ordaintzeko. Dirutik aparte kreditu-txartela be diru-zorroan eukan. Biassilli jauna estutu egin zan Thoumieux luxuzko jatetxean afaria zelan ordainduko eban pentsatzerakoan. Antzokira bueltatzeko ez eukan denborarik, emaztea itxaroten eukan eta. Orduan, ostatu barrura sartu eta gelara igo baiño leen, arrera-lekura urreratu zan dirua eskatzera. Ba ekian ostatuan dirua mailleguan emoteko arazorik ez egoana, lagun askok egiten eban ori eta.

Arrerako mutillak ere, taxi-gidariaren moduan, arrituta begiratu eutsen bere itxura ikusita. Biassilli jaunak zirkinik ere egin barik, modu onean, dirua eskatu eutsen, bosteun euro bueltan. Mutillak orduan identifikaziño txartela eskatu eutsen. Biassillik mutillari bearrezko azalpen guztiak emon ondoren, onek oraindiño identifikaziño txartela erakusteko eskatu eutsen.



- Barriro azaldu bearra daukat ala? Mutilla! zelan esan bear deutsut, ba? - Biassilli jaunak aserratuta.

- Jauna, nik inprimaki au betetu bear dot derrigorrez-mutillak tenoreari eskuak bere aurrean jarriz eta inprimakia erakutsiz- eta orretarako zu identifikatu egin bear zara.

- Nik ez dot bear identifikatzerik! Edonork daki ni nor nazen- Biassillik aserre bizian.



Atzera ta aurrera ebilzan guztiak mutillari eta paillazoari zurtz egin da begiratzen eutsen.

Biassillik andik ebilzane ea bera nor zan baekien galdetzen eutsoen txilioka, baiña erantzunik euki ez ezik, jendea uxatzea baiño ez eban lortu.

- Zuk, mutilla, benetan ez nozula ni ezagutzen?

- Ez, jauna, bene-benetan.

- Ba ni Biassilli tenore ospetsua naz.

- Parkatu egidazu, Biassilli jauna, baiña ez dot iñoiz zure izena entzun. Egia esateko, opera zalea be ez naz. Beste musika estilo batzuk naiago dodaz.

- Bai, bai, zure adiñekoek rock zaratsua naiago dozuena badakit, baiña ori baiño geiago be badago, e? Beste musika estilo batzuk entzuteak kalterik ez deustu egingo! - Biassillik ironiaz.

Mutillak tenoreari begietara begiratzen eutson isilik zeozer itxaroten egoan moduan. Tenoreak orduan etsia artuta, arrerako mostradore gainean egoan egunkaria artu eta orriak arrapaladan pasatzen asi zan, barruan begiratzen, bere argazkiren bat aurkitzeko asmoaz. "Agenda" ekarren orrietan aurkitu eban. Esan bearra eukan oso dotore atara ebe-la argazki orretan. Gazteago emoten eban.

- Mutilla, ea orain ezagutzen nozun- Biassillik aldizkariko argazkia mutillari begi aurrean jarrita.

- Sentitzen dot, jauna, baiña ez zaitut ezagutzen. Ez da erraza be,

kontutan eukita zure aurpegia ezin dodala ondo ikusi, paillazo makillatuta zagoz eta.

- Bai makillatuta daukat aurpegia. Azaldu deutsudan moduan, emonaldia eta gero astirik ez dot euki eta nire asmoa izan da nire gelako baiñugelan garbitu eta aldatzea. Baiña, itzi daigun ori alde batean, eta ez egidazu esan au ni ez nazenik!

- Jauna, ezin dot esan ori zu zaranik. Ez ori ez egunkariko edozein argazkitan agertzen dan edonor. Zure aurpegia ikusita ezin zaitut ezertara be ezagutu.

- Orduan ba, mutilla-tenoreak gero eta pazientzia gitxiagoz-zer egin bear dot zuk niri dirua izteko? Bosteun euro besterik ez dot bear!

- Ara, jauna, diñozun moduan Biassilli tenore ospetsua bazara, erraz eukiko dozu niri ori erakustea.

- Bai? Zelan?

- Ba zure betiko zeregiña egiten, au da, abestuten.

- Abestuten diñozu?

- Bai, jauna.

- Ni, nazen moduan, Biassilli jauna, italiar tenore ospetsua izanda, zuk uste dozu nik bosteun eurogaitik abestuko dodala? Txikikeria orregaitik abestuko baneu, ez nintzateke Biassilli andia izango!

Eta Biassilli jaunak, ospe andiko tenoreak, andikiro ostatuko atetik urten eban.

# Kastrexanako Deabru-zubia

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Ori Kastrejanako zubi orren kontu famatu ori leenengoz nori entzun neutsan baino ez da, baiña bardin deutso, kontatu egingo deusut pipiladureak urtetako modukoa da eta. Zuur entzun egizu ia!

Aditu. Gure zaarrei entzunda deukotsiet, andik Kastrejenatik beerako egi barreneko errekarroan erreka bat dagoe-la, izena ez dakitsut baina alosoko errekeak izan bear dau, seguru.

Eta errekea gora goazela, Pagasarrira einean mutil bat bizi zan,errekeari deusala egineko errotako semea. Ganeko mutila, etxaguna eta modu onekoa, obeto ez, zer? eta denpora aretan errotaria!

Errekearen bestalderdian, labrantzetxe andi baten neskatxi eder bat bizi zan.

Etxe onekoa au be. Labrantzeagaz ganera ardierrebañuak eta ganadu eliak eukiezan. Neskatxa bera be ez zan arantzza orrantzakoa gero! Berba baten esanda, errekadu egin eta etxerako modukoa.

Eta, klaro, errekadu eginda edo eurekitan ebatzita, batak besteari guraizana euki eutsien eta an ebilzan jaunekobean bata bestearen atzean plageak arturik.

Leenago, ez gaurko antzean, mutila joaten zan neskatxiagana, iturrikuretako aitzaki edo besteren bategaz, katua urdaiaren atzetik joaten dan moduan eta ez besterantza.

Kontua da ba ze, mutil orrek , errekea pasetako, arripausuetatik egin bear

izaten eban aronako ori, leenago badakizu, arripausuak asko erabilten ziran zergaitik ze zubigintzea asko kostetan zan. Zurezkoa eginez gero, denporeagaz usteldu egiten zan. Aritz garraztakaz egin arren be, arean geiago, baiña tertzio bateraz gero a be usteldu egiten zan. Arrizko zubiak ostera, orreek bai, orreek alozo agoantetan eben, gaur be bai, batezbe kamiñozubiak, naita oraindiño aldibeteko arri utsezko zubiak zutunik egon.

Eta, ba, olan dabizela, gaulendi edo arrasti berandu baten euria bota aalean asi ei zan eta denodu guztiagaz eragoion eragon be inizitu eta guzti. Eta zer? Ba errekeak ur andiekaz gora egin eta arripausuen gerizarik be ez. Ai ene!

Mutila joan zan, beti letxe, baiña uriolaz geroko ur andietatik ezin pasau errekearen bestalderdira. Neskatxia barriz an ei egoan itxaroten, kargu artuta eta mutila tipirrika eta arteak artu ezinik ikusikeran badiñotso:

- Ez adi artegatu ba egun batekoagaitik, biar be egunak argituko jok eta joango dozak errekarroko urok bere zerera, bere lekura, ez eistak egin epebako tipirrik. Eta uger egiten atomatu be ez adi egin e, urak eroango au eta!

-Zer diñona? Joan ez egiteko diñostena? Joan ez baño, leenago infernuko deabruari berberari gedar egin! Ikusiko dona!

-Ez egik egin olangorik e Jaungoikoaren amorsantuagaitik zein bear ez danaren bat gainetu eta betiko damutu. Aaztu ez egik egin a aldibeteko zereko zeraren maldizinoa gero!

Baina, a mutila gelditakorik ez egoan eta neskatxiak esanak esanda be, deabruari berari ez eutsan ba zantzoa bota!



Zantzo-alauri ori bota baeban ba ze, inizitua bera baño be ariñago plantatu ei jakon deabrua bere ondoan eta:

- Zer bear deustak mutil ain estu eta larri egoteko?

- Zer bear dodan? Zubia, arrizko zubia, nire neure neskatxiagana joateko.

- Ori baino ez badok atoa egingo jak, baiña biar eguzkiak urten orduko zubia egin akabetan bajoat, ireak egin jok, ire arimea neuretzako. Zer deretxak orri?

- Eginda jagok! Zubia egistak eta kitu! -erantzun ei eutsan mutilak odolak ur egiteko moduan, zer esaten eban be ez dakiala-.

Mutilak esan ba ebazan ba ze berbok, asten dira deabruok zubiginen eta mutil ori be bai, baina batez-be errekaz bestaldeko neskatxia bildursartuaren bildursartuagaz burua erre kara bota aal ez dala be, gora goraka eta irrintzaka asi zan. Ez egoan zereginik!

Gauak aurrera egin aala neska mutilok ez ekien nora jo eta alangoren baten neskatxiari bere etxeko zaarrei entzuneko zera, ori eguzkiaren koplea etorri jakon gogora:

*Eguzkia badoa  
bere amagana  
biar etorriko da  
egun ona bada”.*

Eta zeruko laiño arteko bitargietatik bitarteka ikusten eban itargiari begiratu eta badiñotso berbaltu eta guzti sartzamendian estariko eguzkiari:

-Eguzki, badakit berorrek aal dauana, baiña inondik gura baleu urtengo leuke biar apurtxu bat leenago, orreek deabruok zubiginen akabatu baño leentxuago. Ez daki berorrek zeinbat baño gurago neunken zubi ori egin akabatu ez egitea nire gurazeneko mutilaren arimea libretako deabruotarrik, zaar on egin gaitez! Dandik be, eskerrik asko, Eguzki, zu zeu barik ez gara ezer eta, agur, biar arteraño!

Eta, zer pasatu zan? Ba, aditu, deabru eta pragorriok, arriots eta erremintotsean ebilzala, ez dau urtetan ba tertzioa baño piti bat arintxuago eguzkiak zubia arri baten faltan daukiela! Akordatzakoalangoa artu eben parte txarreko.

Deabruok, orduan, podere barik lotu ei ziran amorrugedarrez eta neskatxiari esker mutilak ez ei eban bere arimea betiko galdu. Graziak, osterantzean ganeko bajezea izango zan etxe bietarako?

Andik geroago batera, bata gizondu eta bes tea andratuz gero, ezkondu egin ei ziran mutilaren etxaguntzara, eta urteagarrenerako azbegi onakaz jaio jakien leenengo orpogorria. Arrezkero alkar-poderoso egin ziran bikuntzeari itxita.

Kontatu nik neuk egin deustut au kontu au, baiña ikusi, nok egingo ete eban e? Batek badaki!“

*Eguzkitik goi argia  
edurretik ur garbia,  
arri baten faltan geratu zan  
Kadaguako zubia.*



# Ardoa'ri

- 1.- Ardo laztana, ainbat pozaldi eman izan dizkidazu, baiña ziartu, oraingo ontan gaizki portatu zera zu; zutikan egon eziñik nago eta aurrean naukazu, zure maitale beti izan naiz? au nola egin didazu?
- 2.- Ankak okertu, burua galdu, lausotu zaizkit begiak, ikusten naunak aitortuko du nola diraden egiak; ontaz aurrera nere pausoak ez dira ederregiak, da diotenez, gaur ni galdu nau konpianza geiegiak.
- 3.- Lan-orduak igaro ondoren beti bezela zugana, oso etekin onekoa da gaur egin dedan lana; ori ondo ospatzeko nuan emengo jan da erana, ardo txarren bat ote didazu onan lekuan emana?
- 4.- Ardo maitea zure gorantzak sarri entzun ditut ala, Jesukristoren odola ere zurekin egiten dala; erdi gaixorik zeudenak ere sendatu izan dirala, baiña ikusten det sinismena balantzan asi zaidala.
- 5.- Arrenbeste on egiten dula nunbait du erakutsia, baiña gaur neri egin didana oso gauza itsusia; eskarmentatuz bizi dan batek erabaki dit auzia, neurritik kanpo erate orrek omen du erru guzia.
- 6.- Nola neurtu zenbateraiño izan leiken oker ori? juxtu-juxtuan zutik negona lurrera nintzan erori; altxa nai eta ezin altxarik banuen naiko komeri, eskerrik asko lagundu zidan auzoko mutil zarrari.
- 7.- Parrez da irriz burla egiñez ondoan umetaldeak, aiek bai bapo poztu zitula ango pesta debaldeak; etxeratzean negar-erritak bazitun gure andreak lagundu zidan mutil zarrari egiten zizkan galdeak.
- 8.- Beraz etxera iritsi nintzan mutil zarrak lagunduta, andreak oera eraman nindun beso ondotik elduta; biramonean jeikia nintzan eguna txit zabaldua, jai bezperako mozkorraldiak alderdi ori baduta.

**9.-** Jeiki nintzanean gure andrea  
gosari - jartzen ari zan,  
bezperan zer gertatu zitzaidan  
galdezka azkar asi zan;  
zan bezelaxe aitortu nion  
pekatari baten gisan,  
barkazioa eskatu ere bai  
da irriparez jarri zan.

**10.-** Andre Josepak itzegin zidan  
gozo eta maitasuntsu;  
konturatu, atzo parregarri  
ibilli ziñadela zu;  
ta tabernako ardo on ori  
etxean ere badezu,  
emazte eta seme-alabak  
gogoan izan itzazu.

**11.-** Ez dizut esan nai tabernara  
iñoiz ere ez joateko,  
lagunartea ederra baita  
neke ondoren egoteko,  
neurri batean erabiltzea  
ez da iñoren kalteko,  
atzoko ori izan dedillia  
ikasbide izateko.

**12.-** Damurik ez dazula izan  
Joxe biar edo etzi,  
txarra ta ona al baldin bada  
bear ditugu berexi;  
da lagun txarrak biltzen badira  
aiengandikan igesi,  
guk daduzkagun seme-alabak  
ez ote dute merezi?

*Txomin Garmendia*



# Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea aizan ote zan? (X)

**Foix'eko I Leonor Nafarroako Erregiña'tik datorrena.**

**Leonor eta Foixeko Gazton Kondeak euki zituzen seme/alabak:**

**Gazton** 1.444an Libournen jaioa eta 1.470ean Azaroaren 23an il, Bianako Printzea, eta Kastelbenerko Konde ordea zana.

Frantziako Madalena VIIIn Karloren alabeagaz ezkondu, I Febotar Franzisko ta Katalina seme alabak euki ebazan, biak Nafarroako erregetzaren ondorengoak izango ziranak.

**Pedro** 1.449an Otsaillaren 7an Pau'n jaioa eta 1.490ean Dagonillaren 10ean Erroman il zana, bere bizitzan Arles'eko artx-apezpiku ta kardinala izan zana.

**Juan** 1.450ean Etanpes'en jaioa ta 1.500ean Azaroaren 5ean il, bere bizitzan Etanpes'eko Konde eta Narbonako Konde ordea izan zana.

Juan au, Frantziko XIIIn Luisen arrebagaz, Orleansko Mariarekin ezkondu, eta biok euki eben alaba Foix'eko Jermana, Fernando katolikuaren bigarren emaztea izan



zan lez, IIIn Fernando katoliko onek gero, bere emaztearen eskubide orretatik eskatuko ebazan, Nafar erreinuaren eskubideak.

Emen, argi ikusten dogu, IIIn Fernando katolikuak alegiñ guztiak eginda, aukera ori be erabili ebala Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta emen ez daukie ezer ikusirik, espainiar aberriaren asmoak, Fernando orko aldetik sekula ez zalako ibili.

Gauza orreik, Zisneros, eta 325ean Nizeako batzar nagusian Erromako katolikotasunetik datozen Mundu osoko batzangoaren asmokeriakaz begitu bear jakie.



Or dagozelako faziztaren erpe-nagusi zabal ta sakon orreik, mundu onetan, Europa, Asia ta Afrikan batez be menperatzeko alegiñetan, ainbat eta etenbako odoljariozko kalteak egin dabezanak. Eta ez arritu, oraindiño be, ortze dabizelako.

**Maria** 1.452ko urtean Karkasonan jaio eta 1.467an Kasalen il, 1.465ean Montferrateko VIIIn Gillermo markesagaz ezkondata egon zana.

**Juana** 1.454an jaio ta 1.476ean Otsaillaren 10ean Pau'n il zana, 1.469an Armañak'eko Vn Juan Kondeagaz ezkondata egon zana.

**Margarita** 1.458an jaio, eta 1.486eko Loraillaren 15ean Klisson'en il, 1.471ko urtean Bretañako IIn Frazizkogaz ezkondata euki eben alaba Ana, Bretañako Dukesa izanez gain, birritan izan zan Frantziko erregiña, VIIIIn Karlos, XIIn Luisen semea zana eta XIIIn Luis, Orleans'eko Karlos dukea ta Klebes'eko Ana'ren seme eta Frantziko erregeak ziranakin ezkondata egon zalako.

**Katalina** 1.460an jaio ta 1.494ko urtean il, 1.469an Foix'eko IIn Gazton Benauges eta Kandaleko Kondea zananakin ezkondata egon zana.

**Isabel** 1.462ean jaio eta 1.479ko ostean il zana, Guy Pons'eko Jau-nagaz ezkondata egon zana.

**Ana** 1.464ko Urtarrillan Iruñan jaio, eta 1.464an Otsaillaren 3an Iruñan il zana.

**Leonor** 1.466an jaio ta 1.480ko urtean il, Medinazeliko Dukeagaz ezkondu baiño apur bat lenago.

**Jaime** 1.470ean jaio eta 1.500enean il, Kortez eta Monfort'eko Kondea, bere lengusiña Foix eta Peral-tako Ana, "Mosen Pierres Gaztearen" alabagaz ezkondata lenengo aldiz, eta auek banandu ziranean, Lerin'eko Kondearen alaba Beaumont'tar Katalinagaz ezkondu zana.

### Oar txiki bat.

Gaztelako I Isabel eta Aragoi-ko IIn Fernando katolikuaren bizi kondairak luzeak izango litzakezelako, IVn Karlos Nafarroako errege ta Kolon'tar Kristobal'ekin zer ikusi daukiezan zeaztunetaraiño bakarrik aipatuko dodaz.

### Aragoiko IIn Fernando katolikua.

1.452an Epaillaren 10ean Enrikeztar Juanak, bere senar IIn Juanen aginduz Nafarroaren Lizarrako gortetatik IVn Karlos bere ugazsemearen jaurkintzazko esku-bideak lorrinzen eta ume barri bat itxaroten egoala, berak gura ebalako edo ta Aragoiko legeak alan eskatzen ebalako, larri aldi bateko ariñeketa baten joanda, Nafarroa-kin muga egiten dauan Aragoiko Sos erritxoan eta euren senideko Sada etxean jaio zan IIn Fernando "katolikua" deritxon elementu au.

Nafarroa eta Aragoiko IIn Juan


erregea bigarren ez konduta Enrikez tar Juana rekin, euki eben lenengo semea zan.

1.458an Uztaillaren 25ean Fernandok 6 urte eukezala, bere aita Aragoi ta Nafarroako erregeak, Montblank'eko Duke, Ribagorza-ko Konde eta Balagerreko jaun ize-nakaz jantzi eban.

1.461an Urrillaren 6an Bianako Printze ta Nafarroako erreñuan eskubideko errege zana eta Aragoien erregearen ondorengoa IVn Karlos, bere ugazama Enrikeztar Juanak pozoituz il ebenean, IIn Juan bere senar eta Nafarroa ta Aragoiko errege, IVn Karlos eta Fernandoren aitak, 15 egun beranduago bakarrik, Fernando Aragoi-ko Katalayuzen, Aragoiko ondorengo errege izendatu eban, andik gero Katalunara eroanda, katalanak ondorengo errege lez onartu egien.

1.462ko urtean IIn Juanek, Fernando semea Kataluniaren jaurkintzan, beren Orokorrezko ordezkoa izendatu eban.

1.468ko urtean IIn Juanek, Siziliako errege izendatu eban Fernando.



Eta 1.462-1.472 arteko urteetan Kataluniako anai arteko gudan, Fernandok bere aita IIn Juanek aginduta, Katalunaren gorteko zeregiñakaz arduratu zan.

1.468ko urtean Fernandoren lengusua, Gaztelako IVn Enrike erregearen seme Alfonso il zanean, IV Enrike erregeak, bere ugazarreba Isabel artu eban ondorengo lez Gaztelako erregetzan.

1.469ren Urrillako urtean, IIn Juan Nafarroa eta Aragoiko erregeak maltzurkeriz, Balladolizeko gortean lortu eban, bere seme Fernando, gero Gaztelako erregeña I Isabel ize-nagaz ezagutuko zanarekin, ezkontzazko onguneak siñatzea.

Eta maltzurkeriz esaten dot, ariñautik Fernando Patxekotar Juanen alabeagaz ezkontzeko, itzemandata egon zalako.

### Jaun aundi guzti oneintzat, zer ote ziran LEGEAK ?.

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi eta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, IIn Paulo Aita Santuak ezkontza orretarako ez ebalako emoten baimenik, Karrillotart Alfonso artx-apezpikuak ariñautik il zan IIn Pio Aita Santuen 1.464ko urteko bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako senidetasunaren eragozpenak ezereztuteko, ta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridan Zerberako Urian siñatu zan ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Geronako Printzea zan IIn Fernandogaz.

1.471ko Abenduaren 1ean IVn Sixto Aita Santuak bulda bat agertu eban, I Isabel ta Fernando artean euki ebezan odolkidetasunezko debekuetatik, parkatu edo salbuetsi egiten ebezanak, Erromatik Borjatar Rodrigo, gero Aita Santua VIn Alejandro izenagaz izango zanak ekarri ebena.

1.474ko urtean baiña, Gaztelako erregetzan IVn Enrike il zanean, anai-guda sortu zan, I Isabel aukeratu ta IVn Enrikeren alaba Trastamaratar Juana "La Beltraneja" ez ize-narekin ezagutzen ziran alderdikidearen artean.

Juana Portugaleko errege Vn Alfonso "Afrikanoaren" la-guntza eukinda, onek Juanagaz ezkondu gura ebalako, Portugal eta Gaztelako erregetzak alkartu gurean.





1.475eko urtean Fernandok asko zirikatuta, Segobian Adizkidetasunezko batzarra ospatu zanean, lortu eban I Isabel euki ebazan eskubide bardiñakin Gaztelako “errient-kide”<sup>(1)</sup> izatea, eta ortik aurrera Vn Fernando izenagaz ezagututa, berak artu eban guda onen zuzendaritzazko ardura, 1.476an garaipena lortuta eta gero Santiagoren-maileko<sup>(2)</sup> diruaren zuzendaritza artuta 1.477ko urterarte.

Anai arteko guda au, Juana “La Beltraneja”ren ondamenakin amaitu zan.

1.476ko urtean katoliko errege oneik “Anaidi Santua” irasi eben.

1.478ko urtean gaztelanian inkizizio edo fede-zaindia sortu eben, Aragoien 1.249ko urtetik egon zan bardiñ antzekoa.

1.479ko urtean Alkazobasen egin zan itun edo alkargo bitartez, Juanak, Gaztelako erregeagaz eukezan eskubideari uztea erabagi eban, eta Koinbrako lekaretxe baten sartu zan.

1.479ko urte berean eta Urtarrillaren 20an Aragoi eta Nafarroako errege II In Juan il zanean, II In

Fernando errege eginda, Aragoien emakumearen aurka “Salikako Legea” egon zan lez, I Isabel ezin eben “errient-kide” izendatu, Aragoien II In Fernandoren agintaritza berdiñagaz erregeña izan zediñ, eta Gaztelarrak txartxat artuta, aurrerantzean Gaztelako agintaritzarako I Isabeleri garrantzi aundi edo aintzindaritza emon eutsoen.

1.480ko urtetik aurrera eta Aragoi ta Gaztelako gorteak antolatuta, zuzendaritzaren aginpidea<sup>(3)</sup> ipiñi eben, erregeak antolatzen eben erri ta lurralde guztietan.

1.481eko urtean Gaztelan, Zaldun agintariak bideratuta, Errege-Diruak antolatzen dira<sup>(4)</sup>.

1.481eko urtean errege katolikuak, Granadako moru-erregetzaren menpekotasuna lortu nai guda asi eben, eta guda onek euki eban bereizgarritasunezko arriskutik alboratzeko, Fernando katolikuari guda orren agintaritza kendu eutsoen.

1.492an Urtarrillaren 2an amaitu zan guda onek, ospe ta indar aundia emon eutsen errege katolikuari, naita nire ustez geiago munduaren katolikotasunezko batzangotasuna beti lortzeko ibiltan ziran eleiztarrai, ortik aurrera itxaropenezko baikortasun erak zabaldu egin zaielako erregearen agindu gaiñetik, euren izkutuko aolkularitzaren lan nagusi guztiak batzangotasun orreitarara bideratzeko.

1.492an Epailaren 3an erdi-ugarte edo peninsula onetatik, kanporatu egin ebazan, Judoak ez ziralako bateatuten.

Eta Nafarroako erregetza be sartzen dabe Gaztelako jaurkintzan, Tuteran 1.476ko urtean egin zan ongune bidez.

Eta Amerikako lurraren agerketak, gure Kolon'en ausardiagaitik.

1.492ko urtetik aurrera Fernando katolikua, *naita bere maltzur izaeragaz danetarako almena euki, euki eben gaztelatar eskubidetik baiño, geiago asi zan begiratzan beren aldeko Aragoiko errege eskubidetik, eta Italia ta Afrikaren Iparraldeari ain zuzen be.*

1.493ko urtean Bartzelonako ongundearen bidez, Frantzezaren eskuetan 1.463ko urtetik egon ziran Rosellon eta Zerdeña berrezkuratu ebazan.

(1) Errient-kide = corregente. (2) Santiagoren-Maileko = Orden de Santiago. (3) Zuzendaritzaren aginpidea = mandato del corregidor. (4) Errege-Diruak = hacienda real.


1.495eko urtean Fernandok, Napoles eta Siziliako erreinua Frantzezak eurenganatzeko egiten ez ziran alegiñak ezereztuteko, “Biltzar Santua” antolatu eban, eta eurakaz lortu eban Napoles eta Siziliako erregeak botatea.

1.496an Abenduaren 19an VI In Alejandro Aita Santuak, Fernandoren bildur beren agintaritzazko lurraldeagaitik “Si Convenit” bulda atarata, katolikozko izenak ipini eutzezan Fernando ta Isabeleri, ortik aurrera Gaztelako errege guztiak, nai Austria edo ta Borboi izan, danak ondorengo lez ekarri dabenak, gaur I Karlos izanda izen orren arduraduna.

1.502an Otsaillaren 14ko agiri baten bidez, katolikotasunera ez ziran aldatzen Granadako moru guztien oilketa edo kanporatzea, aginduten ebana.

Eta 1.504ko urtean Frantzezak Napoleseko luraldetik kanporatuta, Napoleseko erreinua Aragoiko koroara aldatzea.

1.504an Azaroaren 26ko eguerdian I Isabel il zanetik, eta 1.512ko urtean Nafarroako erregetzaren menpekotasuna guda bidez lortu ondoren, erregearen gogamena ez, eurak ez ebalako jakin, baiña mundu onetan aginduten eben eleiztar gogamenetan bai, Europa osoa katoliko batzangotu ezinik ibilita euren ustezko espainiar lurraldea lez, ortik aurrera euki eben oldozmeneko almenak aukera baten billa ipiñi ebazalako, 1.789ko urtean Frantziko iraultzagaz aurkitu ebena, eta eleiztar ta merkantilistak lagun alkartuta, iraultza ori egokitu eben, orko urtetik aurrera Europako lurralde osoak laterritzeko asmoakin, errege bakotzaren antolabidezko lurraldeak laterrituta,



bereztasunezko aberri edo errigizarteak etenbako guda erasoko keiñada bategaz menperatuta.

Eta 2.000 urte geroago, menperatzail zale oneik ez dira konturatzen, Jainkoak, gure gizatutako arimak gai-bereztutako Ludi edo mundu onetara bialduta, askatasunezko legean berezkotu euskunetik, bakeak ezin dirala menpekotasunezko norkeriekin lortu, mundu fisiko onetan sutauts edo lerrautsari, poxpolloa urbiltzea lez dalako.

1.505eko Urrillaren 19an Fernando 53 urte euki zituzela, 18 urte euki zituzen Foix'eko Germanarekin ezkondu zan.

Fernando katolikuaren gogoak emendik aurrera, Erromako eleiztarren espainitasuna lortu baiña geiago, euki zituzen guda-indar eta almen guztiagaz egiten ebazan oarkuntzak, Erdi Ugarte onen Ekialdeko lurraldeak, Aragoien agindupean ipintea zan, orko bidetik urbilago ikusten ebazalako beren nagusikerizko kaizar ametsak.

1.509ko urtean Fernando eta Foix'eko Jermanak, seme bat Juanen izenagaz bateatu ebena euki eben, baiña, andik ordu gitxira il zan.

Eta zer sortuko ote zan gaztelaniako asmoetan mutil ura il ez bazan ?.


Gaur, espainiar asmakuntzazkoak guzurra da esaten daben guztia, Fernandoren amets edo irudikerian ez zalako agertzen espainiarren irudirik iñundik be.

**Atutxa'tar Paul**

*Zornotzan 2.015'eko urtean Epailla'ren 21'ean*

# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsak



## Sudoku

2	3			4	8	6		
	1		5			7		2
7	9							
			8					1
			3		9			
8					6			
							3	7
5		2			4		6	
		4	1	6			9	5

5	9	6	2	7	1	6	4	8	3
5	7	2	9	3	4	1	6	8	
9	6	1	2	8	5	4	3	7	
8	2	9	4	1	6	5	7	3	
1	4	7	3	5	9	8	2	6	
6	5	3	8	7	2	9	4	1	
7	9	8	6	2	1	3	5	4	
4	1	6	5	9	3	7	8	2	
2	3	5	7	4	8	6	1	9	

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko .....diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Gazte gaztetandikan  
erritik kanpora,  
estranjeria aldean  
pasa det denbora. (Bis)

Errialde guztietan  
toki onak badira,  
baina biotzak dio:  
"Zoaz Euskalerrira". (Bis)

Agur nere biotzeko  
amatxo maitea!  
Laster etorriko naiz  
kontsola zaitea. (Bis)

Jaungoikoak, ba, nai du  
ni urez joatea;  
ama zertarako da  
negar egitea? (Bis)

Lur maitea emen uztea  
da negargarria.  
Emen gelditzen dira  
ama ta erria. (Bis)

Urez noa ikustera,  
bai, mundu berria;  
oraintxe, bai, naizela,  
errukigarria. (Bis)

**San Telmo, Zumaia**